Erref. kodea: LAF-209-105

Izenburua: Roland Moreau-ren inguruko lana

## Liburu berri

### "Histoire de l'âme basque"

Roland Moreau jaun apezak orai ateratzen du liburu handi bat, Eskualdun girixtinoen ixtorioa xehe-xehea emanez, hastapenetarik orai arte.

Jaun hori Getarian sortua da duela 52 urte. Ama Baigorriarra zuen, Iratchet-tarra. Ez da harritzeko semea Eskual-herriari atxikia baitzaio. Asko urtez osagarriak ez lagundurik, behar ukan du Moreau jaun apezak eliza-karguetarik bazterty bere burnaren artatzeko. Bainan astia ez du galdu: eritasunak uzten ziozkan arte guziak baliatu ditu liburu eta paper zaharren bilatzen eta ikertzen.

Ez zituen ikasiak beretzat atxiki nahi, eta ager-arazi ditu hiru liburu ttipitan: Getaria-ren ixtorioa, Bidart-ena eta Fr. Jardan sainduaren bizia. La Religion des basques liburua ere ateratu zuen, harrigarriko arrakesta izan baitzuen, eta ilabete gutirik barne oro saldu baitziren jalgi ziren liburuak.

Liburu balios hori berriz argitarat zezan galde egiten zioten alde guzietarik. Nahiago ukan du obra hori jositu, arras bertzelakatu, ~~zabaldu~~, aberastu.

Orai 748 plama handi badauzka, zer nahi foto, chifre-xerrenda eta bertze argigarriekin.

Estalgia ere begikoa da: Bidart-eko itsas-bazter eder bat ekartzen du, kolore eztiz.

Liburuaren mamiaz balitake hainitz erraiteko. Hain da xehetasunez betatua, non ez baititake haren laburpenik eman.

Erranen dugu hogoita-bortz kapitulu nasai badituela, eta zonbaitek zati berexi andana bat baditutzkela.

Gei gehienak zoin ditu bada ?

Lehenik hiru kapitulutan entseatzen da argitzerat noiz nundik sartu den hunarat girixtino erlisionea : aitortuko dugu ilunbeak ez dituela osoki barreatzen.

Gero, bereziki hamekagarren mendetik aintzina, paper zaharreri esker, hobeki erakuts ditake zer iragan den Lapurdin, Baxenabarren eta Xiberoan. Liburuak aipatzen dauzku gertakari bihotz-altxagarriak ; ez ditu halere dembora hetako miseriak gordetzen, ez girixtino xoilenak, ez eta apez edo berdin fraile eta apezpikuenak ere.

Jakiten ditugu mendez-mende usatuak izan diren debozione, beila, predikatze, batasun saindu, komentu eta ohidura onak. Bainan hala-hala desordreak, protestantekilako gudukak, jansenisten tema txarrak, erreboluzione-egunetako sarraskiak, erlisionearen etsaiek muntatu lege gaixtoak eta heien ondorio ahalgegarriak.

Nahiz gure arbasoen arteko fedeak bere gora-beherak ukan dituen, bana bertze ez da epeldu are gutiago iraungi, bainan argitu, sendotu, bizkortu.